

www.unescoetxea.org

2018

TXOSTENA

UNESCO ETXEA
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA

GUILLERMO DORRONSORO LEHENDAKARIA ARANTZAZU ACHA ZUZENDARIA



Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantzaren aurkezpena. Gasteiz, 2018ko irailak 24.

UNESCO Etxea desberdinen arteko lankidetzaz sustatzeko topagunea da: gizarte zibilaren, herri-erakundeen, sektore pribatuaren eta herritarren arteko lankidetzarako topagunea. Urte askotako lan handiari esker, 2018an aliantza ugari eta indartsuak finkatu ditugu eta, beraien bitartez, gure misio, ikuspegi eta balioak era partekatuan eta orotarikoan jorratzeko aukera daukagu.

Aurten pauso erraldoia egin dugu euskal gizarte globala konpromiso eraldatzailearekin eraikitzeko bidean gizarte zibilako kide gisa parte hartze aldera. Horren adibidea da Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) alde egindako lan nekaezina, pertsonak eta planeta erabaki guztien erdigunean kokatuko dituen gizarte-erlaketarako tresna izan daitezkeen. Euskadiko eragile askorekin jardun dugu elkarlanean 2030 Agendaren lema («Ez utzi inor atzean») benetan gauzatzeko. Izan ere, garapen jasangarria guztientzat izango da ala ez da inorentzat izango.

Estatuko 50 antolakunderekin baino gehiagorekin ere koordinatu gara, GJHak estatuko politiken ardatz bihurtzeko asmoarekin. Ahalegin horren barruan, gizarte zibil globalaren ordezkariak izan gara Nazio Batuen Goi-mailako Foro Politikoan, eta Espainiako Gobernuari eskatu diogu politika publikoak jorratzen dituenen talderik ahulenei erreparatzeko, batez ere.

2018. urtean sendotu egin da UNESCO Etxeak bultzatzen duen GizARTE, Gizarte Eraldaketarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarea. Sareak hazten jarraitzen du eta egunetik egunerako Euskadiko eragile sozial eta kulturalen artean kide gehiago biltzen ditu, kultura eraldatzailearen bidez garapen jasangarriaren laguntzeko prest agertu baitira.

Era berean, UNESCOren familia osoarekiko aliantzak (UNESCOrekiko bame) indartu ditugu, beken bidez eta azterlanetan eta hitzaldietan parte hartuz. Ildo horretan bertan, lankidetzaz estua jorratu dugu Euskal Herriko UNESCO Sarearekin (UNESCOrri atxikitako eskolen sarearekin), Biosferako Erreserbekin, UNESCO zentrotan Espainiako Federazioarekin eta UNESCO katedrekin.

Gure eguneroko lana ardazten duten balioetan oinarritu gara aliantza horiek lotzeko eta sendotzeko: profesionaltasunean eta zorroztasunean, garapen jasangarri eta inklusiboarekiko konpromisoan eta giza eskubideekiko konpromisoan, konfiantzan, genero-berdintasunean, aniztasunean, desberdinen arteko errespetuan eta, oro har, gizarte global humanista eta gure planetarekiko errespetuzkoa eraikitzeko premia dugun konbentzimendu tinkoan.

Balio horietan inbertitzen jarraituko dugu eta horiek izango dira gure elkartearen ezaugarriak. Gure bazkideei esker eraikitzen ditugu baliook, eta guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu emandako laguntzagatik eta adierazitako konpromisoagatik. Horregatik, gure ikuspegiarekin bat egiten duten pertsona guztiak UNESCO Etxera biltzera animatzen ditugu, Bakearen Kultura eta pertsona guztientzako Giza Garapen Jasangarria eraikitzeko ezinbestekoa den proiektu partekatua bateko kide izan daitezkeen.

Erredakzio: UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroko lan-taldea ; **Edizioa:** 2019ko maiatzak

Bilbao: Isozaki Atea – Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala. *Tfn:* 94 427 64 32
Gasteiz: Zapatari kalea 8. *Tfn.:* 945 26 41 96

info@unescoetxea.org – www.unescoetxea.org




NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 132 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXEKO ORGANIGRAMA



Gainera:
- 15 Boluntario egoiltzan.
- Eusko Jauritzairekin 12 bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan
- BBK Fundazioarekin 2 bekadun en UNESCOren Pariseko egoiltzan.



NBE Beken Programa. 2018ko promozioa

EGINKIZUNA, IKUSPEGIA, BALIOAK

EGINKIZUNA

UNESCOren Konstituzioari agindua –persona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarteak, UNESCOren sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioak bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekin eraldatzaileak sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBERekin;
- Bere iritzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituen– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berria, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritarren global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzaileak, parte-hartzaileak, paritariak eta aktiboak sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.

BALIOAK

Balio hauekin identifikatzen gara:

- Zintotasuna; izan ere, gure zereginak, legezkoa eta etikoa izateaz gain, gure sektoreko jokabide-kode onena bete behar du;
- Partaidetza asertiboa, talde profesionalaren, Zuzendaritza Kontseiluaren, bazkideen eta kolaboratzaileen aldetik;
- Zuzentasuna, eskubide eta betebeharre dagokienez;
- Gardentasuna eta gidaritza egokia, barrura nahiz kanpora begira, jarduerak, zuzendaritza-organoetako kideen izenak eta haiek hautatzeko eta berritzeko modua, ikuskatutako kontuak eta kudeatutako fondoen jatorria urtero argitaratuz;
- Profesionaltasuna, arlo guztietan kalitatez, eraginkortasunez, zehaztasunez eta errespetuz lan eginez;
- Sarean lan egitea, gure konpromisoak tokiko eta nazioarteko sare eta aliantzekin partekatuz;
- Independentzia, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz, baina, betiere, independentziari eutsiz, eta beti gure ideien printzipio eta balioen arabera jokatzuz;
- Pluraltasuna, elkartearen barruan zein gure proiektu publikoan, gure organo eta lanetan gizarte honen konplexutasuna eta osatzen dugun dibertsitate globala kontuan hartuz.

SARE ETA ALIANTZAK

UNESCOrekin eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOrekin Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- UNESCOren kultura-ondare ez-materiala babesteko batzordearen GKE aholkularia.
- Nazio Batuen Komunikazio Globala Saileko kidea.
- UNESCOren eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren Helburuei buruzko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).
- Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordea.

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Espainiako Federazioa (FECU).
- Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCO (FCACU).
- UNESCOren kultura-ondare ez-materiala babesteko konbentzioaren aurrean akreditaturik diren GKE-en Sarea.
- UN NGO Major Group.
- UN Women Major Group.
- Together 2030.
- Local Governments for Sustainability (ICLEI).
- European Sustainable Cities Platform.
- Futuro en común.

- Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sarea (REDS-SDSN).
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundea.
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarten Federazioa.
- Munduko Landagunea.
- Cultura de Paz Fundazioa.
- Emakume progresisten federazioa.

...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- Euskal Herriko UNESCO Sarea (EHUS).
- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Kultur paisaiak eta Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Deustuko Unibertsitateko Latinoamerikako Giza Baliabideen prestakuntzarako UNESCO Katedra.
- Gironako Unibertsitateko Kultura Politiken UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea.
- Giza Eskubideetan Hezitze eta Bakearen aldeko Elkarten Foroa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserba. UNESCO MaB Programa
- Universitat Oberta de Catalunya (UOC).
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- Emakumeak Aniztasunean elkartea.
- Eusko Ikaskuntza.
- Bilbao Metropoli 30.
- Ahalbidetu elkartea.
- Bilbao Diseinuaren UNESCO Hiria . Hiri Sortzaileen Sarea.
- Novia Salcedo Fundazioa.
- Mujeres con voz elkartea

BEKAK

NBE Bekak

1997tik, Nazio Batuen beken programa kudeatzen dugu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez finantzatzen dena.

7 lagun joan dira UNESCOk Afrikan eta Latinoamerikan dituen bulegoetan lanera. Horiez gain, beste 3 pertsonak beste urtebeterako berritu dute beka. Horrela, 189 gaztek hartu dute parte programa horretan 1997an abian jarri zirenetik hona.

BBK-UNESCO Bekak

BBK Fundazioak eta UNESCO Etxeak bi nazioartekotze-beka eskaintzen dituzte urtero, lan-erperientzia bat emateko UNESCOren egoitza nagusian Parisen. Beken 5. edizioari esker, bi pertsona aritu dira lanean 6 hilabetez Parisen, UNESCOren egoitza nagusian, bata Administrazio Zerbitzu Nagusietan eta bestea Giza Baliabideen Bulegoan.

Prestakuntza-bekak kultura ondarean

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara eta Kultura Sailaren laguntzarekin Bi gaztek 4 hilabeteko prestakuntza-praktikak egin dituzte gure Bilboko egoitzan: Ondare Up tresna didaktikoa ezarri eta kultura ondarea nabarmentzeko ekintzak egiten lagundu dute.

Prestakuntza-bekak Urdaibain

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren laguntzarekin 'Urdaibai beken' bigarren edizioari esker, Biosferaren Erreserbari lotutako bi gaztek 4 hilabeteko prestakuntza-praktikak egin dituzte. Gainera, UNESCO Etxeak lagunduta, UNESCOk Ekuador eta Peru arteko «Bosques de Paz» mugaz gaindiko Biosferaren Erreserban antolatutako 'Iberoamerikako eta Karibeko Biosfera Erreserben I. Foroa - Garapen Jasangarriaren aldeko Gazte Ekintzaileak' izeneko topagunean hartu zuten parte.

Giza eskubideetan prestatzeko bekak

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin 11 beka banatu ditugu Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluari eta haren arau-tresnei buruzko prestakuntza-tailerrean parte hartzeko. Genevan egin da, saioen 39. aldian. 2018an, gizarte eraldatzeko arte-hezkuntzaren alorreko profesionalak zuzendu zaizkie.



Leyre Martínez eta Daniel Ortiz de Lanzagorta. Kultura-ondarean prestakuntza-beken 1. promozioa

PROGRAMAK. Jarduera nabarmenak

2030 AGENDA ETA NAZIO BATUAK



'Alda dezagun planetaren norabidea... mugi zaitez GIH-en alde... batukadaren eritimoan' kanpaina. Guggenheim Bilbao Museoa. 2018ko azaroak 9.

2030 Agenda indarrean jarri zenetik hiru urte igaro diren honetan, euskal gizarte eragileen konpromisoa eta partaidetza indartzeko lanean jarraitu dugu, pertsona guzientzako etorkizun jasangarriagoa sortzeko bidean.

Hedapenari dagokionez, ekintza aipagarriak egiten jarraitu dugu; esaterako, «SOSTenibles.tv» kanpaina eta lehiaketa, 2030 Agendari buruzko e-buletina, «17 helburu gure mundua eraldatzeko» ilustrazio-erakusketa, orotariko ekintzak EAEko herrietan, 6. GJHari buruzko kanpaina Bilboko Aste Nagusian, eta astero EITBren «Vivir para ver» saioan parte hartzea, 17x17 ekimenean parte hartzen duten erakunde bakoitzarekin. Berrikuntza moduan, aurten **GIH bakoitzari buruzko 17 bideo** egin ditugu, eta baita arrakasta handia lortu ere. **EITBren laguntzari esker**, telebistan eta beraien webgunean zabaltzen ari dira.

Prestakuntzari dagokionez, **ikastaro espezializatuak** egin ditugu, hala nola «2030 Agendarako zeharkako begirada feminista» eta «Emakume enpresari eta zuzendariak, GJHak lortzeko ezinbestekoak», bai eta BizkaiaTalenten bidez 2030 Agendari eta GJHei buruz egindako prestakuntza eta laguntza ere. Era berean, lantegiak eman ditugu 20 bat ikastetxetan, eta 1.000 gazte eta euren irakasleak bildu ditugu beraietara.

'**Garapen jasagarria eta inklusiboa bultzatzen. 2030 Agendaren eta GIHen protagonistak' jardunaldia** antolatu dugu. Erreferentziako jardunaldia izan da, nazioarteko hizlarien partaidetzarekin, eta gizarte-eragileek GJHen inguruan duten eginkizunari buruz sakon hausnartzeko ez ezik, talde ahulenen egoerari erreparatzeko ere balio izan digu, «inor atzean geldiz ez dadin». UOCrekin batera, «GJHei euskal kooperatibismoari dakarkioten balioa» jardunaldia ere antolatu dugu.

Bilbao Metropoli-30ek zuzentzen duen **Bilbao Metropolitarra 2035 Plana** garatzeko «Nortasuna eta Hiria» ildo estrategikoan parte hartu dugu, eta 2030 Agendari buruzko diagnostikoa egin dugu Bilboko Udalarantz.

GJHetarako erreferentziako guneetan lanean jarraitzen dugu; azpimarratzekoak dira, adibidez, Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantza eta, nazioartean, **Nazio Batuen Goi-mailako 2018ko Foro Politikoa**. Bertan, Nazioko Boluntariotzari buruzko txostena aurkeztu zuen Espainiak, eta gizarte zibilaren izenean hitz egin zuen gure zuzendari Arantza Achak.

Bigarren urtez abiarazi dugu «Alda dezagun planetaren norabidea... Mugit zaitez GIHen alde... Batukadaren eritimoan» izeneko **kanpaina**, bigarren hezkuntzako 2. mailako ikasle eta irakasleei zuzendua. Zortzi ikastetxetako 600 gazte hartu zuten parte: 2030 Agendari buruzko prestakuntza jaso ondoren, Guggenheim Bilbao Museoa elkartu ziren, batukada kolektibo baten bidez 2030 Agendarekiko babesa ikusarazteko. Horretarako, eguneroko gauzeekin egindako perkusioko musika-tresna birziklatuak erabili zituzten, eta Reperkusion Feminista Elkartearen laguntza jaso zuten emanaldian.

GARAPENERAKO KULTURA



'Gizarte-errezeta liburua' irudia. Munduko Gizarte Foroa. Bahia, Brasil. 2018ko martxoak 13-17.

Gizartea eraldatzeko eta garapen iraunkorrerako aukerarik ez dago, tokian tokiko eta munduko ezaugarri kulturalak kontuan hartzen ez badira. Ikuspegi hori kontuan hartuta, UNESCO Etxeak lan-lerro sendo bati eutsi dio 2018an ere, agerian jartzeko kulturak eta adierazpen kulturalen dibertsitateak duten garrantzia gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren erronka nagusiei aurre egitekoan.

Ildo horretan, aliantza sendoa lotu dugu artistekin, hezitzaileekin eta kulturakudeztzaileekin **GizARTE**ren (Gizarte Eraldaketarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarearen) bidez. Abiapuntu hori hartuta, Bahian (Brasilen) egindako Munduko Gizarte Foroan eta Aalton (Finlandian) egindako Europako InSEA Kongresuan (International Society for Education Through Art) parte hartzea sustatu dugu; gizarte-eraldaketaren aldeko arte-hezkuntzako 11 profesional trebatu dira Genevako Giza Eskubideen Kontseilarean tresnei buruz; eta Giza Eskubideen Deklarazioaren 70. urtemuga ospatu dugu Euskadin egindako orotariko ekintzen bidez (besteak beste, Montehermoso Kulturunean egindako **FemRIGHTS erakusketa**, Irantzu Lekue artistarekin eta Gasteizko Udalararekin elkarlanean).

Zenbait kanpaina ere bultzatu ditugu: batetik, **Ondare UP**, Kultura Ondasunaren Europako Urtearen esparruan eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, Bizkaiko gazteei kultura-ondarea eta kultura-aniztasuna hurbiltzeko asmoz. Eta, bestetik, **'Basauri aniztasunaren alde'** ekimena, Emakumeak Aniztasunean elkartarekin batera. Haren bidez, hiriko kultura eta gizartea garatzen laguntzen duten eta genero-ekitatearen, kultura-aniztasunaren, bizikidetzaren eta bakearen balioak sustatzen dituzten gizon-emakumeak identifikatu ditugu.

Orobat, hezkuntza-esparrurako gogoeta kritikoak ekarri nahi dituzten dokumentu bibliografiko batzuk sortu ditugu; besteak beste, «Bestelako feminitateak eta maskulinitateak, orotarikoak eta berdinkideak, eraikitzen» eta Arteari Hezkuntzari eta Garapenari buruzko hirugarren lan-koademoa, «Arte-hezkuntza Euskadiko gizarte- eta hezkuntza-esparruan» gaia lantzen duena.

Urtea amaitzeko, gizarte patriarkaletan dauden bazterkeriak eta bereizkeriak borrokatzeko proposamen globalak egitean «artibismoak» duen eginkizuna bistaratzearan alde egin dugu, «LGBT+ Aniztasunerako Leioa» izeneko Euskadi-beroamerika lehen topagunearen bidez.

HEZKUNTZA ETA BAKE KULTURA



UNESCOren mundu mailako hezkuntzaren jarraipen txostenaren aurkezpena. (GEM Txostena). Bilbo. 2018ko azaroak 23.

2018an bakearen kultura eta giza eskubideak sustatzen jarraitu dugu, prestakuntza-jardueren bidez, UNESCOri atxikitako eskolen mundu-sarean parte hartuz eta munduko hezkuntzaren jarraipenari buruzko UNESCOren III. txostena aurkeztuz.

EAEko **10 ikastetxek hartzen dute parte UNESCOren sarean**. Horren barruan egindako jarduera guztien artean bi aipatuko ditugu: batetik, UNESUM izenekoak Nazio Batuetako herrialdeak nola biltzen diren eta herrialde horiek gizateriaren intereseko gaiak nola negoziatzen dituzten erakusten du, jardun hori erreproduzitzen; eta, bestetik, UNESCOri atxikitako eskolen Estatuko XXXI. topagunea, Benidormen egin dena.

UNESCOren «Migrazioa, lekualdatzea eta hezkuntza: zubiak eraikitzen, hormak eraiki beharrean» **txostena aurkeztu dugu**. Txostenak hezkuntza-esparruari lotutako Garapen Jasangarriko Helburuan (GIH 4) egindako aurrerapenak ditu aipagai eta, horrekin batera, emigrazio-mota ezberdinen tamainari eta ezaugarriei buruzko eta herrialdeetako hezkuntza-erlako migrazio-politiken eta -joeren arteko ezberdintasunei buruzko informazioa eskaintzen du.

Prestakuntzari dagokionez, **'Garapenerako lankidetzaren proiektuen formulazioan giza eskubideen ikuspegia barne hartzea'** ikastaroa egin da, GGKE-etako ordezkariak unibertsitateetako ikasleak bilduta: 20 lagun guztira.

'**Human Rights Internship Programme**' izeneko prestakuntza-ikastaroaren beste edizio bat ere antolatu da Genevan, giza eskubideen jatorriari, historiari eta nazioarteko kodifikazioari buruz, eta eskubide horiek babesteko eta sustatzeko Nazio Batuek dituzten mekanismoei buruz. Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko hezkuntza-elkarteen Foroko kide diren erakundeei zuzendu zaie prestakuntza.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

IRAUNKORTASUNA



Ane Ibarzabal eta Iker Montes, Urdaibaiko ordezkariak Iberoamerikako eta Karibeko Biosfera Erreserben I. Foroan. Ekuador-Peru. 2018ko abenduak 5-8.

2018an, **UNESCOren MaB programan** (biosfera-erreserbak) modu aktiboan parte hartzen jarraitu dugu, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba nazioartean posizionatzen lagundu. Hain zuzen, jardun horretan egindako bideoa aukeratu du UNESCOk, beste 19 bideorekin batera, mundu osoan Erreserben Mundu Sarearen ordezkari izateko.

Urdaibain eta Euskal Kostaldeko Geoparkean **2030 Agenda, GIHak eta UNESCOren balioak ezagutarazteko tailerrak** eman ditugu, Urdaibaiko eta geoparkeko gazteak hiritar kritiko izateko bultzatzeko. Bost ikastetxetan egin ditugu tailerrak, eta 300 ikaslek hartu dute parte guztira.

'**Urdaibai bekak**' banatu ditugu bigarren urtez jarraian. Beraien bidez, Biosferaren Erreserbari lotutako bi gazte 4 hilabeteko prestakuntza-praktikak egin dituzte. Gainera, UNESCO Etxeak lagunduta, bi gazteek «Iberoamerikako eta Karibeko Biosfera Erreserben I. Foroa – Garapen Jasangarriaren aldeko Gazte Ekintzaileak» izeneko topagunean hartu zuten parte. UNESCOk antolatu zuen jardunaldia Ekuador eta Peru arteko «Bosques de Paz» mugaz gaindiko Biosferaren Erreserban, MaB programan partaidetza aktiboa duten mundu osoko gazteei euren komunitateetako garapen jasangarrian laguntzeko aukera bat emateko asmoz. Esparru horretan, Urdaibaiko gazteen etorkizunari buruzko tailerra antolatu dugu, beraien ikuspegiak eta kezak ezagutzeko.

Euskadin egiten den lana nazioartean zabaltzeko dugun egitekoari eutsiz, sareetan dugun presentzia baliatu dugu **Euskal Adierazpena** - Europako hiri eta herrietarako bide-ori berria eta Udalsarea 21en lana ezagutarazteko. Aran Acha gure zuzendaria ICLEIk (Iraunkortasunaren aldeko tokiko gobernuen Europako sareak) antolatutako Ekintza Eraldatzailearen Sariko epaimahaikide izan zen.

Euskadiko Ekosistemen Zerbitzua Ebaluatzeko proiektua euskal gizarteari helarazten jarraitu dugu. 2018an, eta beste ekimen batzuen artean, onlineko ikastaroaren 2 edizio egin ditugu, horietako bat berriaz irakasleei zuzenduta. Ildo beretik, dibulgazio materiala ekoiztu dugu, hala nola eskoletan eta interpretazio-zentroetan banatzeko postalak eta posterrak.

Ingurumen osasuntsua giza eskubidea eta giza garapen jasangarriaren ezinbesteko elementua dela defendatzeko lanean jarraitu du UNESCO etxeak. Gai hori lantzen eta sakontzen jarraitzeko atxiki gaizakizko **Pobreziaaren aurkako borrokarako ingurumen jasangarriko Sareari**.

2018ko ARGITALPENAK www.unescoetxea.org eta www.youtube.com/unescoetxeapv -en eskuragarriak


Berezko argitalpenak:

- Gida didaktikoa. Feminitate eta maskulinitate alternatibo, askotariko eta berdinzaleak eraikitzen.]
- Arte, Educación y Desarrollo. La Educación artística en el ámbito socio-educativo vasco.
- Ecos de la serpiente. Reflexiones desde el País Vasco sobre instrumentos del Consejo de Derechos Humanos

Euskarazko itzulpena:

- UNESCOren mundu mailako hezkuntzaren jarraipen txostena 2019. Migrazioa, lekualdaketa eta hezkuntza.

Bideoak: • Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH 1-17) | 2030 Agenda – Kale ekintzak | Ondare UP | Urdaibai 2018ko Munduko Gizarte Foroa | Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 70. urteurrena | Giza Eskubideak marrazten



EKITALDI NABARMENAK

1 NAZIO BATUEN GARAPEN IRAUNKORRARI BURUZKO GOI MAILAKO FORO POLITIKOA

Nazioarteko erreferentziazko guneetan parte hartzen dugu urtero, hala nola Garapen Iraunkorrari buruzko Goi Mailako Foro Politikoan. Foro hori uztailaren 9tik 18ra artean egin zen, Nazio Batuen New Yorkeko egoitzan.

2030eko Agendaren segimendua egiteko tresnetako bat da foro hori. Urtero, NBEko herrialdeek azterketa bat egiten dute, beren borondatez, eta, azterketa horretan, herrialde bakoitzak aditzera ematen du nola ari den aurrera egiten eta nola ari den integratzen bere politikan 2030eko Agendako konpromisoak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak. 2018an, 47 herrialdek aurkeztu zuten borondatezko azterketa, eta, herrialde horien artean, Espainia zegoen.

Futuro en Común-en parte gisa joan ginen bertara. (Futuro en Común 50etik gora gizarte-erakunde osaturiko plataforma bat da; erakunde horiek lankidetzan dihardugu 2030eko Agenda estatuan sustatzeko).

Espainiako Gobernuak borondatezko azterketa aurkeztu ondoren, zenbait pertsonak galderak egin zituzten, gizarte zibilaren ordezkari gisa, eta pertsona horietako bat gure zuzendaria izan zen, Arantza Acha.

2 JARDUNALDIA: GARAPEN IRAUNKOR ETA INKLUSIBOA SUSTATUZ. 2030 AGENDA ETA GIHETAKO PROTAGONISTAK

Urriaren 23an 'Garapen iraunkor eta inklusiboa sustatuz. 2030 Agendako eta gihetako protagonistak' jardunaldia antolatu genuen.

Jardunaldi honen helburua zen 2030 Agenda eta GHIak eztabaidatzea, aktibatzea eta sustatzea, mailalokalean nahiz globalean, mundu justuago eta iraunkorrago bat lortzeko garaian euskal gizartearen konpromisoa eta inplikazioa errazteko, bai eta haiek inplementatzen laguntzeko eta sustatzeko ere.

Hiru zutabe nagusi izan ditu:

- Ideiak: benetan eraldatzailea al da 2030 Agenda?
- Ekintzak, "erantzukizun komunak baina bereziak" premisa kontuan hartuta.
- Pertsonak, eta, bereziki, zaurgarrienak ("inor atzean ez uztea")

3 'EMAN MINUTU 1' LEHIAKETA

2018an, 9. edizioan, lehiaketak 'Eman minutu 1 Interkulturaren alde' izena hartu zuen eta honako hauek izan zituen gaitzat: aniztasunean eta kulturartekotasunean elkarrekin bizitzeko eskubide unibertsala, tolerantzia eta berdintasuna.

Oiartzungo Haurtzaro ikastolak irabazi zuen edizioa 'Bertsoz bertso kultura alaitzen' lanarekin.

Hamazortzi urte beherakoentzako 'Ekin eta egin' kategorian, Gazteizko Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxeko DBH 2mailako ikasleak izan ziren garaile 'Mundo de color' lanarekin eta 'UNESCO Etxea' kategorian Bilboko Edu Gonzalezek irabazi zuen 'Winners' lanarekin.

Ortuellako San Félix Ikastetxeak, 'Interkulturartekotasuna' lanarekin 'Euskarazko minuturik onena saria' irabazi zuen.

Sonia López Paz-ek aurkeztua, 'Hilda banengo bezala' bideoak 'Eiken Aipamena' irabazi zuen. Sari honekin, teknika digitalen erabilera hobekien bultzatu duena saritu zen.

Informazio gehiago: <https://dame1minutode.org>

4 'TITO' DOKUMENTALAREN ESTRAINALDIA

Azaroaren 24an Guggenheim Bilbo museoan 'Tito' dokumentalaren estrainaldia izan zen Yago Mateok, 'Dame 1 minuto de Refugio' lehiaketako VII. Edizioaren irabazleak sortutakoa.

Tito dokumentalak begirada desberdin batetik jorratzen du errefuxiatu sahararren lekualdatzea Tindufen. Gazteak bizitza guztia darama Tindufeko kanpamenduetan, bere adinari ez dagozkion kezak ditu eta saiatzen da inor ez haztea non dauden.

Dokumentala aurkezteko saioan, zuzendariarekin batera, Cesare Maglioni argazki zuzendariak eta Abdulah Arabi, Saharako Errepublika Demokratikoaren ordezkaria ere izan ziren. Musika emanaldia 'Sahara' taldearen eskutik izan zen.



1



2



3



4

DATU EKONOMIKOAK

GARDENTASUNA

Gure kontuak LKS Auditores, S.L.-k ikuskatzen ditu.

Kontu-ikuskaritzaren txostenak 'Gardentasuna' atalean www.unescoetxea.org web gunean daude.

2018ko Auditoriaren txostena



LKS AUDITORES, S.L.P.
 Auditoría Independiente, S.L.P. (Sociedad limitada)
 C.I.F. 48174204
 N.º de inscripción en el R.D.A.C. N.º 51054
 Calle de San Juan, 10
 48901 Leizor (Bizkaia)
 www.lksauditores.es

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES ABRUEVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE

Al Consejo de Gobierno de UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO.

Opinión

Hechos auditado las cuentas anuales abreviadas de UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO (la Entidad), que comprenden el balance abreviado a 31 de diciembre de 2018, la cuenta de resultados abreviada, y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2018, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria abreviada) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hechos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas de nuestro informe.

Somos independientes de la Entidad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

LKS AUDITORES, S.L.P.



UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO

Informe de auditoría de cuentas anuales abreviadas emitido por un auditor independiente a 31 de diciembre de 2018

- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por el Consejo de Gobierno.
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por el Consejo de Gobierno, del principio contable de empresa en funcionamiento, y basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que puedan generar dudas significativas sobre la capacidad de la Entidad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Entidad deje de ser una empresa en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales abreviadas representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Nos comunicamos con el Consejo de Gobierno de la entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificada y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación al Consejo de Gobierno de la entidad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

LKS AUDITORES, S.L.P.
 Inscrita en el R.D.A.C. N.º 51054


AUDITORES

LKS AUDITORES, S.L.P.
 BEIZ: MERCEDES PASCUAL MAESTRE

N.º Mercedes Pascual Maestre
 Inscrita en el R.D.A.C. N.º 18.942
 16 de mayo de 2019

Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

SARRERAK GUZTIRA 2018	922.037,45€	
Ekarpen pribatuak	168.700,64€	%18,30
Ekarpen publikoak	753.336,81€	%81,70




- Bazkideak
- Erakunde pribatuak
- Beste batzuk (norbanakoen dohaintzak, publizitate balioespina...)
- Eusko Jaurlaritza (*)
- Aldundiak (BFA-GFA-AFA)
- Udalak (Bilbo, Getxo, Gasteiz, Donostia, Basauri)
- Beste batzuk (lokalen lagapenaren amortizazioa)

(*) Eusko Jaurtaritza:
 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia %78,84; Ingunumen, Lurralde Planigintza eta Etxebizitza Saila %12,56; Hezkuntza Saila %6,43; Bikáimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza %2,17

Programetako gastua

GASTUAK GUZTIRA 2018	913.252,88€
-----------------------------	--------------------



- 2030 Agenda eta Nazio Batuak
- Iraultza programa
- Garapenerako Kultura programa
- Hezkuntza eta Bake Kultura programa
- Kudeaketa orokorra
- Lokalen amortizazioa

Egoera-balantzea 2018

AKTIBOA	
Aktibo ez-zirkulatzailea	53.809,93
Aktibo zirkulatzailea	984.422,12
Aktiboa guztira	1.038.232,05
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Ondare garbia	971.692,89
Fondo propioak	52.589,54
Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak	919.103,35
Pasibo zirkulatzailea	66.539,16
Ondare garbia eta pasiboa guztira	1.038.232,05

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2018an laguntza eman baitgute giza garapen iraunkorraren alde lanean jarraitzeko.

Instituzioari diruz laguntzen diote:

- Laboral Kutxa.

Egitasmoetan laguntzen dute:

- BBK Fundazioa.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Puente Bizkaia.

Baliabideak uzten dituzte:

- Diario El Correo.
- Diario de Noticias de Gipuzkoa.
- Diario de Noticias de Álava.
- EITB.
- Ekain Fundazioa.
- Zestoako Udala.
- Eroski.